



## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA

### 295-ARAU-2018 LEA/AVC ESPEDIENTEA

#### Aurkibidea:

I. TXOSTENAREN XEDEA ETA LEA/AVC-REN ESKUMENA.....	1
II. INGURUMENA BABESTEKO ESKUBIDEA.....	2
III. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NATURA ONDAREA KONTSERBATZEARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA.....	3
IV. LEHIARI BURUZKO GOGOETAK .....	4
V. ONDORIOAK .....	6

#### Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea  
Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea  
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea  
Maria Lourdes Muñoa Corral, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean LEK), zeina goian adierazitako moduan osatuta baitago, 2018ko urriaren 18an eginiko bileran, txosten hau onartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko Legearen Aurreproiektuaren inguruko 295-Arau-2018 LEA/AVC espedienteren barruan.

### I. TXOSTENAREN XEDEA ETA LEA/AVC-REN ESKUMENA

1. 2018ko uztailaren 18an, LEA/AVC honetako erregistroan Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko Legearen Aurreproiektuaren inguruko txosten bat egiteko eskaera jaso da, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskutik. Eskaera Eusko Jaurlaritzak espedienteak modu elektronikoan izapidetzeko duen Tramitagune izeneko gunearen bitartez helarazi zaio LEA/AVC honi.

2. Legearen arabera erakunde honek lehiaren sustapenaren arloan duen eskumenari lotuta egin da txosten hau. Eskumen horren helburua Euskal Autonomia



Erkidegoko merkatuetan benetako lehia sustatzea da. Horretarako, zigortzaileak ez diren neurriak hartzen dira, eta, horien artean, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira, arau juridikoen proposatzaile diren neurrian.

Txostenean, lege-aurreproiektua merkatuetako benetako lehiaren eta arauketa ekonomiko eraginkorraren ikuspegitik aztertu da.

## II. INGURUMENA BABESTEKO ESKUBIDEA

**3.** Ingurumena babestea oinarrizko eskubide bat da Europar Batasunaren barruan eta garapen jasangarria aurrera eramateko Batasuneko politiken eta ekintzen definizioaren eta gauzatzearen barruan sartzen da<sup>1</sup>.

**4.** Europar Batasunak ingurumenaren arloan duen politikak honako helburu hauek lortzen laguntzen du:

- ingurumena zaintzea, babestea eta bere kalitatea hobetzea,
- pertsonen osasuna babestea,
- naturako baliabideak zuhurtziaz eta zentzuz erabiltzea,
- ingurumenaren arloko munduko edo eskualdekako arazoei aurre egiteko nazioarteko neurriak sustatzea, bereziki klima-aldaketaren aurka borrokatzekoak.

**5.** Europako Batzordeak, «Hazkunde zentzuzko, jasangarri eta integratzaile baterako EUROPA 2020 Estrategia» jakinarazpenaren bidez, hazkunde zentzuzko, jasangarri eta integratzaile baten aldeko estrategia ezarri du EBn. Europa 2020 Estrategiak EBri honelako hazkundera izatea ahalbidetu behar dio:

- zentzuzkoa, jakintza eta berrikuntza garatuz;
- jasangarria, bitartekoak modu eraginkorragoan kudeatuko dituen ekonomia berdeago eta lehiakorrago batean oinarritua;
- integratzailea, enplegua eta gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzera bideratua.

**6.** Estatuan, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta leheneratzeko oinarrizko araubide juridikoa finkatzen du, EKren 45.2 artikuluan zehaztutako kontserbatzeko betebeharraren eta pertsonen garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidearen barruan.

**7.** Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren<sup>2</sup> 11.1 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzten du

<sup>1</sup> Ikus Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 37. artikulua. EBAO, C83/399 zk., 2010eko martxoaren 30ekoa.



ingurumenari eta ekologiari buruzko legeak garatzeko eta oinarrizko legeria betearazteko eskumena.

8. Gaur egun, 1/2014 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko naturaren kontserbazioa arautzen du (EAENKLTB)<sup>3</sup>. Era berean, biodibertsitatearen inguruko alderdiak Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren (EHIBL)<sup>4</sup> II. tituluko I. kapituluan arautzen dira.

### **III. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NATURA ONDAREA KONTSERBATZEARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

9. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko Legearen Aurreproiektua egiteko prozedurari ekiteko agindua eman du. Era berean, lege-aurreproiektu horri aurretiko onarpena emateko agindua eman du.

10. Lege-aurreproiektuak (aurreproiektua) gaur egun indarrean dagoen EAENKLTB indargabetuko du, baita EHIBLren II. Tituluko I. kapitulua ere.

11. Aurreproiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ondarearen babesa, kontserbazioa, kudeaketa, erabilera jasangarria, lehengoratzea eta hobetzea arautzen ditu, honako helburu hauetarako:

- Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarrizko bizi-sistemen jarraipenari eustea, ekosistemen zerbitzuak babestuz.
- Natura-ondarearen dibertsitate biologikoa eta geologikoa kontserbatzea eta lehengoratzea, bai eta haren ahalmen produktiboa ere.
- Natura-ekosistemen kontserbazio-egoera ona babestea, bai eta ondare geologikoaren eta paisaiaren barietatea, berezitasuna eta edertasuna ere.
- Dibertsitate genetikoaren kontserbazio-egoera ona bermatzea, bai eta basafauna eta basaflorearen populazioen eta bertako habitaten babesa ere.

---

<sup>2</sup> 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzkoa. 1979ko abenduaren 22ko BOEa, 306. zk.

<sup>3</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina. 2014ko maiatzaren 19ko EHAA, 92. zk.

<sup>4</sup> 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra. 1998ko martxoaren 27ko EHAA, 59. zk.



- Natura-ondarearen ondasunen, baliabideen eta zerbitzuen erabilera jasangarria bermatzea, bereziki espezie basatiena eta ekosistemena, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen galera netoa saihesteko.
- Natura-ondarea kontserbatzera zuzendutako ezagutza, prestakuntza eta ikerkuntza sustatzea.
- Natura-ondareari buruzko datuak eta informazioa antolatzea, trukatzea, eta haien zabalkundea egitea.

**12.** Aurreproiektuaren arabera, natura-ondarea naturaren ondasunen eta baliabideen multzoa da, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen iturria, autonomia-erkidegoko lurraldeko itsasoko eta lehorreko eremuetan kokatzen dena, lurzoruan, lurpean edo lurgainean. Balio garrantzitsua dauka ingurumenaren, paisaiaren, zientziaren edo kulturaren aldetik, eta, horretaz gain, eginkizun sozial garrantzitsua betetzen du, pertsonen garapenarekin, osasunarekin eta ongizatearekin duen lotura estuarengatik eta garapen sozial eta ekonomikoari egiten dion ekarpenarengatik.

**13.** Lege-aurreproiektuak zioen azalpena eta 7 titulu ditu: I. titulua: Xedapen orokorrak; II. titulua: Eskumen- eta antolamendu-araubidea; III. titulua: Natura-ondarea ezagutzeko, planifikatzeko eta babesteko tresna orokorrak. IV. titulua: Naturagune babestuak; V. titulua: Fauna eta florako espezie basatien babesak; VI. titulua: Natura-ondarea kontserbatzeko sustapen-, ekonomia- eta finantza-neurriak; VII. titulua: Ikuskaritza eta zehapen-araubidea. Horrez gain, bederatzi xedapen gehigarri, zortzi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bakarra eta bi azken xedapen ditu.

#### **IV. LEHIARI BURUZKO GOGOETAK**

**14.** Aurreproiektuaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ondarea babesteko, kontserbatzeko, kudeatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, lehengoratzeko eta hobetzeko esparru juridiko bat finkatzea da. Horren bidez, natura eta natura-baliabideak askotariko narritadura-eragileen aurrean kontserbatzeko asmoa du, hainbat politika bateratzen dituen garapen ekonomiko eta sozial ordenatuko prozesu batekin bateragarri eginda.

**15.** Aurreproiektuak natura-ondarea babesteko honako mekanismo hauen bidez eramaten du aurrera:

- Natura-ondarea ezagutzeko, planifikatzeko eta babesteko tresnak: Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarearen Inbentarioa, Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategia, natura-baliabideak antolatzeko planak, lotura ekologikoaren plangintza, igarobide ekologikoak, etab.



- Gune babestuak, Natura 2000 Sarea gunea, biosfera-erreserba, geoparkeak, hezeguneak, etab.
- Basafauna eta basaflorearen espezieak.
- Natura-ondarea kontserbatzeko sustapen-neurriak eta neurri ekonomiko-finantzarioak.

**16.** Zaintza-araubide horren osagarri gisa, natura-ondarea kontserbatzearen kontrako jokabideengatik administratiboki kargu hartzeko ikuskaritza eta zehapen-araubide bat finkatzen ditu. Era berean, gune babestuetan eta horien periferiako eremuetan ekonomia-jarduerak gauzatzeko dauden mugak kontuan hartuz, natura-ondarea kontserbatu ahal izateko sustapen-neurriak eta neurri ekonomiko-finantzarioak arautzen ditu.

**17.** Garbi dago ekonomia-jarduerak ingurumenean kalteak eragin ditzakeela eta hori merkatu-akats bat da. Beti interes ekonomiko eta sozial orokorren eta ingurumen-interes zehatzen arteko tentsioa sortzen da, lehenengoak asetzeak bigarrena kaltetu dezakeelako.

**18.** Hala ere, ingurumena babestea eta lehiaren aldeko arauketa bat egitea bateragarriak izan daitezke, benetan beharrezkoak eta proportzionalak diren eta merkatuko eragile ekonomikoen artean bazterkeriarik eragiten ez duten arauak finkatzen badira.

**19.** Aurreproiektuko klausulak aztertuta ondorioztatzen denez, natura-ondarea babesteko finkatzen dituen mekanismoak, hasieran ekonomia-jarduerak oztopatzeko moduko trabak sor ditzaketan arren, interes publikoko beste helburu posible batzuen aurrean –horien artean, enpresa-askatasuna– ingurumena lehenesteko beharrari erantzuten diote.

Hala ere, aurreproiektuaren testua merkatuko lehiaren ikuspegitik hobetzeko, LEAk legearen oinarri izango diren printzipioen artean (3.1 artikulua) arauketa ekonomiko eraginkorra, beharra, proportzionaltasuna eta bazterkeriarik eza barne hartzea gomendatzen du. Horrela, printzipio horiek, 3.1 artikulua barruan dauden gainerakoak bezala, administrazio publikoentzako jokabide-jarraibideak eta natura-ondarea babesteari buruzko araudia interpretatzeko irizpideak izango lirateke.

Hala, adibidez, natura-baliabideak, antolatzeko planak, erabilera eta kudeaketa arautzeko planak eta naturaren kontserbazio-bankuak arauketa ekonomiko eraginkorraren printzipioetara egokitu beharko lirateke.



## V. ONDORIOAK

**20.** Aurreproiektuko klausulak aztertuta ondorioztatzen denez, natura-ondarea babesteko finkatzen dituen mekanismoak, hasieran ekonomia-jarduerak oztopatu ditzaketen trabak sor ditzaketen arren, interes publikoko beste helburu posible batzuen aurrean –horien artean, enpresa-askatasuna– ingurumena lehenesteko beharrari erantzuten diote.

**21.** Hala ere, aurreproiektuaren testua merkatuko lehiaren ikuspegitik hobetzeko, LEAk legearen oinarri izango diren printzipioen artean (3.1 artikulua) arauketa ekonomiko eraginkorra, beharra, proportzionaltasuna eta bazterkeriarik eza barne hartzea gomendatzen du.